



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/07

## **Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe baimen bako absentzietarako baterako jarduneko Protokoloaren aplikazioaren ganeko ekimena**

Gizarte Ekintzako Batzordeak aho batez onetsi dau gaur goizean Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena, Bizkaiko Foru Aldundiari eskaria egiteko, Baimen bako Absentzietarako Baterako Jarduneko Protokoloaren Jarraipenerako Batzordearen deialdia eskatu daian eta bertan, arreta bereziko soslaia daukien adinbakoien kasuetan aurrera eroan beharreko jarduketan eta adinbakoak aurkitu ostean jarduketak gauzatu beharreko moduaren gaineko puntu bat sartu daian.

Proposamena aurkeztu dauen Podemos Bizkaia taldeak adierazo dauenez, Protokoloak ez ditu jasoten jokabide disruptiboa daukan umearen edo nerabearen bilaketa lanetan gauzatu beharreko jarduketak, ezta adinbako hori aurkitu ostean aurrera eroan beharreko ekintzak be. Horrez gain, talde horretako ordezkariak azpimarratu dauenez, arriskutsua da “iraganean babes faltea emon deusien familiako eta gizarteko giroetara itzultzea”. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako ordezkariak balioan jarri dabe zuzenketa-eske transakzionala onetsi ostean lortutako adostasuna, eta ordezkari jeltzaleak esandakoaren funtsa konpartidu dabe. Adierazo dauenez, “sistemak hobetzeko aukerak dituan arren, balorau egin behar da orain arte egindako beharra”.

Talde Mistoagaz batera ekimenaren alde agertu diran eta Protokoloak aldaketa bat behar dauela esan daben EH Bildu eta Talde Popularra ekimenaren alde agertu dira, eta prebentzioaren printzipioa azpimarratu dabe, dokumentuan faltau ezin dan oinarri gisa.

### **ESKARIAK EBAZTEKO EPEALDIA ETA ATECE**

Eguneko gai zerrendea Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatuaren agerraldiagaz osatu da, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek eskatuta, gai bi lantzeko. Lehenengoan, desgaitasuna ebaluetako eskaerak ebazteko denporearen ganekoan, Foru Aldundiak aurretik emondako idatzizko erantzuna eskasa dala esan dau EH Bildu talde eskatzaileak. Horri jagokonez, Gizarte Ekintzako diputatuak adierazo dau Aldundiak jaso dauen eskari kopuruak gora egin dauela, kanpotik etorritakoak eta Arreta Goiztiarreko Esku-hartzetik etorritakoak, eta modu “parzialean” bada be, igoera horrek “eraginak dituala hurrengo ekitaldiko ebazpenetan”. Halanda be, adierazo dauenez, dokumentaziorik aurkeztu behar ez dan kasuetan itxaroteko behar dan denporea gitxiago da.

Horrez gain, diputatuak, bere sailak igaz antolakuntza eta prozedura mailan egin ebazan aldaketak azpimarratu ditu, eskintzea egokiagoa izan daiten. Beharginei jagokonez, Gizarte Ekintzako diputatuak adierazo dauenez, 2018rako aurreikusita dagon aurrekontu hornidurea, behar administratiboa eta teknikoa egiten daben beharginen zuzkidura barrien hazkundera egongo da bideratuta.

Erantzunen txandan EH Bilduk eskertu egin dau gaur eskinitako informazioa, idazkian zehazten zana baino osotuagoa izan dalako. Talde Popularreko ordezkariak balorazio positiboa egin dau, Bizkaia “prozesu horreek arinen emoten diran” Lurraldea dala esanez. Ordezkari sozialistak gauza bera esan dau bere esku-hartzean eta, gainera, aurreikusitako datarik ez dagonez, garrantzitsua dala atzerapenen ganean barbarik ez egitea azpimarratu dau. Euzko Abertzaleak taldeko batzordekideak, bere aldetik, ebazpenak emoteko denporak garrantzitsuak diran arren, kanpoko faktoreak be kontuan izan behar dirala esan dau. Bukatzeko, Podemos Bizkaia taldeak adierazo dau “kontrolatuko gaitzak diran faktoreez aparte, ezinbestekoa dala zerbitzu ona bermatzeko baliabide guztiak jartea”.

Bigarren gaiari jagokonez, Podemos Bizkaiak Aldundiaren eta Hartutako Kalte Zerebralaren Bizkaiko Alkartearen (ATECE) artean izandako bileren emaitzak zehazteko eskatu dau. Isabel Sánchez Roblesek azaldu dauenez, soziedadearen titulartasuna pribadua dan arren, urtero Aldundiaren diru-laguntzea jasoten dau. Halanda be, ATECE jasaten ari dan egoeraren barri badakien arren, diputatuak esan dau “Hartutako Kalte Zerebrala daukien personei erakunde publikoetatik emoten jaken arrete bermatuta dagola”, Bekoetxeko eta Lurgorriko Eguneko Zentroen bitartez.

NOTA DE PRENSA

07/05/18

## **Las Juntas Generales aprueban por unanimidad una iniciativa relativa a la aplicación del Protocolo común de ausencias no autorizadas**

La Comisión de Acción Social ha aprobado esta mañana por unanimidad una Proposición No de Norma de Podemos Bizkaia, enmendada por los grupos que sustentan al Gobierno Foral, que insta a la Diputación Foral de Bizkaia a que solicite una convocatoria de la Comisión de Seguimiento del Protocolo común de actuación para ausencias no autorizadas e incluya un punto sobre las actuaciones a desarrollar en los casos de menores con perfiles de especial atención y cómo deben desarrollarse las actuaciones una vez localizados los menores.

El grupo proponente, Podemos Bizkaia, ha manifestado que el Protocolo no recoge ni las actuaciones a desarrollar durante la búsqueda del niño, niña o adolescente con conducta disruptiva, ni las acciones a proceder en la recogida una vez esta persona menor de edad sea localizada. Asimismo, su representante ha resaltado el riesgo que supone “retornar a los espacios familiares y sociales que les habían desprotegido en el pasado”. Tanto el representante del grupo Nacionalistas Vascos como el de Socialistas Vascos han puesto en valor el consenso alcanzado tras la aprobación de la enmienda transaccional y han compartido el fondo de una de las afirmaciones del representante nacionalista que aseguraba que “a pesar de que el sistema tiene mejoras hay que valorar el trabajo hecho hasta ahora”.

EH Bildu y Grupo Popular, quienes junto con Grupo Mixto también han apoyado la iniciativa y han asegurado que el Protocolo necesita sufrir una modificación, han resaltado el principio de prevención como fundamento que no debe faltar dentro del documento.

### **TIEMPO DE RESOLUCIÓN DE SOLICITUDES Y ATECE**

El orden del día se ha completado con la comparecencia de la diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, a petición de EH Bildu y Podemos Bizkaia para tratar dos cuestiones. En la primera de ellas, relativa al tiempo de resolución de solicitudes de discapacidad, el grupo solicitante EH Bildu valoraba como escasa la respuesta escrita previamente concedida por el ente foral. A este respecto, la diputada de Acción Social ha manifestado que la Diputación ha sufrido un incremento de solicitudes tanto de origen ajeno como en el ámbito de la Intervención en Atención Temprana, que aunque sea “parcialmente”, este aumento “tiene efectos en las resoluciones del ejercicio inmediatamente posterior”. En este sentido ha resaltado que en los casos en los que no hay que aportar documentación el tiempo de espera es menor.

Asimismo, la diputada ha resaltado los cambios tanto a nivel organizativo como procedimental que el departamento ha realizado durante el pasado año con el fin de que la oferta sea más adecuada. En lo que al personal se refiere, la diputada de Acción Social ha explicado también que la dotación presupuestaria prevista para 2018 estará destinada al aumento de nuevas dotaciones de personal tanto administrativo como técnico.

En el turno de réplica EH Bildu ha agradecido la información ofrecida hoy puesto que resultaba más completa que la detallada en el escrito. El representante del Grupo Popular ha realizado una valoración positiva del servicio aseverando que Bizkaia es el Territorio “en el que estos procesos se dan con mayor celeridad”. Una afirmación compartida por el representante socialista que en su intervención, además, ha expresado la importancia de no hablar de retrasos al no existir una fecha estimada. Por su parte la apoderada del grupo Nacionalistas Vascos ha declarado que, a pesar de que los tiempos de resolución son importantes, se deben tener en cuenta los factores externos. Por último Podemos Bizkaia ha manifestado que “más allá de los factores poco controlables, es imprescindible poner todos los medios para garantizar un buen servicio”.

Respecto a la segunda cuestión Podemos Bizkaia ha solicitado a la representante foral que detallara el resultado de los encuentros entre la Diputación y la Asociación de Daño Cerebral Adquirido de Bizkaia (ATECE). Isabel Sánchez Robles ha explicado que aunque la sociedad es de titularidad privada percibe anualmente una subvención foral. No obstante, aun siendo conscientes de la situación que atraviesa ATECE, la diputada ha asegurado que “la atención desde las instituciones públicas a las personas con Daño Cerebral Adquirido está garantizada” a través de los Centros de Día de Bekoetxe y Lurgorri.